

**EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOKO AHOLKU BATZORDEAREN
OSOKO BILKURA**

2008ko abenduaren 10a

AHOLKU BATZORDEKO KIDEER BANATU DOKUMENTU ZERRENDA

I. EEP-REN 2009 URTERAKO JARDUERA PROGRAMA

II. AITZINKONTUA

II.1. Gastu eta sartzeen aitzinikuspena, kontable postu ezberdinen arabera zehaztu orientabideen dokumentua deklinatzen duena

II.2. Sintesi taula bat, 2008. urteko buxetaren somatu erabilera eta 2009. urteko buxeta proiektua parekatzen dituenak.

II.3. 2009. urteko EAE/EEPren arteko lankidetza jarduteko fondoaren eskema proposamena.

I.

EEP-REN 2009KO JARDUERA PROGRAMA

1. Interes Publikoko Elkargoaren berriztapenaren prestaketa

Interes Publikoko Elkargoaren (IPE) sorrerako hitzarmena 2010eko uztailaren 31an bukatzen da. 2009ko urtean IPEaren berriztapenaren prestaketan jardunen da.

- Kanpoko aditu batek ebaluaketa eginkizun baten gauzatzea :
 - EEPk dituen eginkizunei begira, eramandako jardueren diagnostia/bilduma,
 - 2010 ondorenerako gomendioak

- 2010eko agorritik goiti IPEaren antolaketa izanen denarentzat, EEPko partaideen arteko aitzin-elkarrizketak :
 - Eginkizunak
 - Ahalak
 - ...

2. Irakaskuntza

- Irakaskuntzaren eskaintzaren garapena
- Irakaskuntzaren eskaintzaren egituraketa kualitatiboa
 - ⇒ Euskarazko irakaskuntzaren garapenari eta egituraketa kualitatiboari doazkion lan ekintza programa finkatuko du 2008ko Abenduaren 15ean bilduko den Hezkunde Nazionalaren eta Kontseilu Nagusiaren arteko gidaritza batzordeak (batzordeari doakiolarik programaren definitzea eta EEPri obratzea).

- Lehen eta bigarren mailetako irakaskuntzako datu basea (ikastetxeak, ikasleak, irakasleak)
 - Urteko eguneraketa : 2008-09 ikasturteko datuak
 - Euskarazko irakaskuntzaren egoera : egoera 2008-09 eta bilakaera 2004 ⇒ 2008

- ↳ Ikasmaterialen ekoizpena
 - Aitzineko urteetako argitalpen programen segitzea
 - Eskolei zuzendua den inkesta gauzatzea : ekoiztuak diren ikasmaterialen ezagutaraztea eta beharrak non diren ikustea
 - 2009ko argitalpen programaren segitzea
 - Ikasmaterialetan berezituak diren eragileen biderapenaren jarraipena
 - Ikas zentroarekin den hitzarmenaren berriztapenaren prestaketa
 - Ikasen lekualdatzea segitzea

- ↳ Ikastetxeen hizkuntza jarduera proiektuak
 - 2008-09 ikasturteko Ikastetxeen hizkuntza jardueren proiektu deialdiaren biderapenaren eta bilduma baten idazketa
 - 2009-10 ikasturteko norabideen eta ibilmoldearen definitzea (araudiaren eta eskabide txotenaren definitzea)
 - 2009-10 ikasturteko hizkuntza jardueren proiektu deialdiaren jarraipena

- ↳ Euskara eta Informazio eta Komunikazio teknologiak :
 - Lehen mailako eskolentzat garatutako Eskola Bulego Digital (EBD) baten hedapen desmartzaren segitzea
 - Bigarren mailako kolegioentzat garatutako Ilias EBD-aren lokalizazioa
 - Beste euskarri digital batzuen azterketa eta banaketaren antolaketa, ikasleek euskararekiko harremana azkartzeko helburuarekin

3. Euskal Autonomia Erkidegoarekilako lankidetzak

- ↳ 2008. urteko Proiektu Deialdiaren bururapena eta bilana zehaztuaren idazketa.

- ↳ 2009. urterako Eranskinean zehaztu lankidetzarako programaren prestaketa eta honen biderapenaren jarraipena :
 - Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak elkarlanean burutu jardueren jarraipena (informazioaren trukaketa, prestaketak eta partaidetza teknikoak, hizkuntza-gaitasunaren egiaztagirien baliokidetzaren definitze eta antolaketa ...),
 - Hizkuntza jardueraren alorrean diharduten eragile ezagun batzuekilako hitzarmenaren jarraipena,
 - Hizkuntza jardura Proiektu Deialdiaren biderapenaren jarraipena (non trataera atal berri bat argitalpenarentzat).

- ↳ Laugarren inkesta soziolinguistikoaren emaitzen zabaltzea :
 - Aurkezpen eta bilduma txostenen banaketa
 - Mintzaldi publikoetan parte hartzea

4. Eragile publikoek eramandako hizkuntza ekimenak

- ↳ Tokiko aginteekin partaidetzan
 - Partaidetza berriak gauzatzekoak : Angelu, Errobi Aturri Herri Elkargoa, Hazparneko Lurraldea
 - Tokiko Gidaritza Batzordeetan parte hartzea
 - Hizkuntza teknikarien sarearen dinamizatzea
 - Hizkuntza ekimen egitasmoak
 - Agenteen hizkuntza prestaketa
 - Planen koordinaketa
 - CNFPTri buruzko desmartxak

- ↳ Lehen haurtzaroa
 - Dispositiboaren ofizializatzeko partaide publikoekilako hitzarmenaren izenpetzea eta labelizatze batzordearen sortzea
 - Label bat eskuratu nahi duten eragileen aholkatze lana (Senpere, Xiberoko haurtzaindegia...)
 - Komunikazio, material pedagogiko eta animazioen alorrean partaidetza aukerak aztertu Kontseilu Nagusiarekin....
 - Lehen haurtzaroko profesionalen jatorrizko formakuntza
 - ...

- ↳ Euskara Gaitasunaren Egiaztapen Dispositiboa (EGED)
 - Dispositiboaren ibilmoldearen definizioa
 - Unibertsitatearekin Hitzarmen Koadroa (+ 2009ko eranskina)
 - C1 mailako egiaztagiraren definizioa Batzorde Eratzaileak
 - Batzorde Zientifikoaren sorrera eta abiatzea
 - C1 mailako lehen proben antolaketa eta bilduma (ekaina eta urrian)
 - B1 eta B2 mailako egiaztagiriaren definizioa (urria/abendua)

- ↳ Argitalpena
 - Proiektu deialdiko argitalpen atalaren araudiaren definitzea eta obratzea
 - Euskarazko argitalpenarentzat, hedapen eta banaketa dispositiboaren definizio lana (Elkarrekin partaidetzan – ARPELen aholkularitza teknikoak)

- Pariseko azokan, mahai bat euskal argitaratzaileentzat, EKEREkin partaidetzan
 - Baxe Nafarroako herri elkargoekiko partaidetzaren baitan, haur literatur sari baten antolaketa
- ↳ Norantz ikerketa proiektua, IKER zentroak eramana (2008ko iraila – 2011ko agorrila)
 - Proiektu eramailearen laguntzea 2 eta 3. urteendako finantzamendu osagarrien atzemateko
 - Proiektuaren jarraipen eta gauzatzea
- ↳ Euskaltzaindiarekilako hitzarmena
 - Hitzarmenaren 2009ko eranskinaren prestakuntza
 - 1 : 25 000 eskalako IGN mapetako euskarazko toponimoen grafia zuzenketaren proiektuan, jarraipena eta bururatzea

5. EEP zuzenki eramandako hizkuntza ekimenak

- ↳ ETB 1 katearen hartzea
 - ETB 1en hartzeko gidaritza eskemaren aitzineko ikerlanaren jarraipena (emaitzak 2008 hondarrerako edo 2009 hastapenerako)
 - Gidaritza eskema baten egitea eta AKri aurkeztea
 - Obratzearen hastapena, onarturiko norabideen arabera : etengabeko lan-ildo
- ↳ ETB3 katearen hartzea (euskarazko kate berria, EITBko gazte eta haurren katea)
 - ETB3ren laguntzea Numéricablen bidez BABn hedatzeko desmartxetan
 - ETBren laguntzea ETB3ren hedatzeko aterabide osagarrien atzemateko (ETB1en hedatzearekin lotuak edo ez)
- ↳ EEP-ren Internet web ataria :
 - Atariaren irekitzea eta sarean ezartzea
 - Eguneratze prozeduraren finkatzea
 - Modulu eta tresna ezberdinen sarean ezartzea : base terminologikoa, toponimia, extranet aplikazioen aberastea euskara teknikarien loturan, datu base baten egituraketa,...

- ↳ Hizkuntzaren kalitateari loturiko ekimenak
 - Euskara/ Frantsesa hiztegi proiektua:
 - Baldintza teknikoen azterketa eta gauzatzea : informatika lan ingurunea, iturri lexikala, testu corpusa ...
 - Itzulpen lanen abiatzea
 - Hizkuntza balioeste zerbitzu baten martxan ezartzea
 - Horren bitartean, eskaerei erantzutea : itzulpenak, seinaletika, toponimia

- ↳ Elkarre eragileen profesionalizatzeko laguntza
 - Herria : Bilduma
 - AEK
 - Euskal Irratiak
 - Ohakoa
 - Seaska : azterketa eta informazio bilketa lan bat, ikastolen presidenteei eskaintzeko tresna bat, haien egituren kudeaketa eta tokiko kolektibitateekiko harremanak erraztuko dituen

- ↳ Euskarazko hedabideen promozio kanpaina
 - Lehen zatia: Bururatzea eta bilduma
 - Bigarren zatia : Kanpaina publikoaren eramatea

- ↳ 0-5 urtekoei zuzendu euskarazko argitalpen eskaintzaren promozio kanpaina
 - Bilduma eta segidarako gogoeta

- ↳ Euskararen erabilpena bizi sozialean
 - Posta : diagnosiaren berriz abiatzea eta jarraipena
 - Lyonnaise des eaux : diagnosiaren jarraipena
 - STAB : diagnosiaren berriz abiatzea eta jarraipena
 - Euskal Xerriak, Surf Rider, Swing Home, Aviron Bayonnais : burutu
 - ...

I. 2009KO FUNTZIONAMENDU AITZINKONTUA

2006ko abenduan Hizkuntza Politika Proiektuaren onarpenak, euskararen aldeko hizkuntza politika publikoaren egituraketan urrats erabakigarria markatu du.

Dokumentu honek hengoiti, EEPri urte anitzeko koadro bat ematen dio, onarturiko 12 kapituluetatik bakoitzarentzat orientabideak finkatuz eta garatu beharreko lan ildoak zehaztuz.

Proiektu koadro honi esker aldi berean, hizkuntza politika publiko honen obratzean parte hartu nahi duten eragile publiko eta pribatuekin partaidetzak eraiki daitezke.

Egin molde honen eta 2006ko abenduan finkaturiko aitzinkontu antolaketa berriaren obratzean 2. urtea izan da 2008a.

Azken honek, eragile publiko eta pribatuek harturiko inizatibak molde osagarri eta koherentean antolatzea du helburu eta horretarako, aitzinkontuaren sei kapitulu izendatzen ditu.

1. Erakunde Publikoak garaturiko egitasmoak (- 40 000 € // 2008)

Hizkuntza politika proiektuaren obratzean, Euskararen Erakundeak berak obratuko dituen jarduerak dira.

Jarduera hauen gauzatzeak aparteko gastu batzuk sorrarazten ditu ere; honako hauek adibidez:

- azterketa batzuentzat kanpoko obratzaileen beharra
- inkesta edo galdeketentzat kanpoko obratzaileen beharra
- sentsibilizazio edo Komunikazio kanpainentzat hainbat gastu (dokumentuen argitalpena, interbentzio batzuentzat adituak ekarraraztea, ekitaldien gastuak, publizitatea...)
- materiala eta tresneria erosketak
- terminologian adituek osatu batzordearen funtzionamendua : lexikoen argitalpena, giza baliabide gastuak...
- euskararen balorizazio desmarta batean engaiatu eragileekiko partaidetzek sortzen dituzten gastuak (eragile publikoak, enpresa handiak...)

EEPk zuzenki bideratuko dituen egitasmo hauen gauzatu ahal izateko, bere 2009ko jarduera programan **80 000 €**ko aitzinkontua, ondoko moldean banatzen da:

❖ Ordainsariak :	25 000
❖ Zerbitzu sari desberdinak :	25 000
❖ Abisuak, iragarkiak :	10 000
❖ Publikazio desberdinak :	10 000
❖ Garraio gastuak :	5 000
❖ Misioak, harrerak :	5 000

2009an inkesta soziolinguistikoa, 0-5urteko argitalpen katalogoa eta hedabideen kanpaina¹ bezalako proiektuak ez direlako berriztatuko EEPk zuzenean eramaten dituen proiektuentzako aitzinkontua apaldu da (-40 000 € // 2008).

2. Tokiko aginte eta beste eragile publikoek garaturiko egitasmoak (+ 20 000 € // 2008)

Lurralde ezberdinetan politika publiko koherente baten egituratzeko gisan, Erakunde Publikoak lehen mailako tokiko elkargoei egin proposamena arrakastatsua izan da.

2008 bururatzean 6 hitzarmen izenpetuak dira eta 6 teknikari dira, sareari egotzitako eginkizunen eramateko gisan, zuzenki tokiko aginteen erantzukizunpean, eta EEPekin partaidetza hertsian. 2008ko ekainean Biarritzeko hirian Zuzendari bat eta langile batez osatutako euskara zerbitzu bat plantan ezarri da.

Euskararen baliatzearen bultzatzeko nahikundea duten herrien sustatzea eta laguntzea da dispositibo honen helburu nagusia. Aldi berean, hizkuntza politika proiektuaren beste lan ardatzak lurraldean eramateko tresna bihurtzen da.

EEPk Euskal Herri osoan obratzen dituen operazioen osagarri gisa, tokiko inizatiba horiek diruz eta partaidetza teknikoan bidez laguntzen ahalko ditu, kasuan kasu aztertu beharrekoak.

Izan daitezke kolektibitateetako agenteen hizkuntza formakuntzari lotuak, haurtzaindegien labelizatze laguntza prozesu bati lotuak, unean uneko euskararen sustatzeko ekintzak, edo eremu publikoan euskararen erabilpena bultzatzea helburu duen edozein beste ekimen.

ETBko errepikagailuen mantenimendurako EKHErekiko hitzarmena ere arlo honetan kokatuko da.

¹ Oharra: Euskarazko hedabideen « publiko zabalari » zuzendua den kanpaina, 2008ko aitzinkontuan sartzen zen eta 2009an eramaten da.

Aurkeztuak diren egitasmoen kopurua goiti doala kontutan hartuz, eta tokiko aginte edo beste eragile publikoek eramandako hainbat proiekturen laguntzeko ahalmenaren ukaiteko EEPk aitzinkontuan **140 000 €**ko kopurua finkatzen du (+20 000 €/2008).

Finantzaketa partekaturako eskaera bakoitza banaka aztertuko du Administrazio Kontseiluak.

Tokiko proiektu hauen gauzatzeak, hizkuntza politika proiektua eskualdeetatik hurbilen bizi araztean parte hartzen du, hautetsiak partaide bilakaturik eta egoera geografiko aniztasunaren errespetuan.

3. Elkarte eta beste eragile pribatuek garaturiko egitasmoak (+40 000 // 2008)

Elkarte edota eragile pribatuek, eremu askotan egituratzaileak diren hizkuntza ekimenak eramaten eta garatzen dituzte.

Politika publikoak, elkarten ekimen hauek egonkortu eta laguntzea du nahia, botere publikoek finkatu orientabideekin osagarritasunean eta koherentzian.

3.1. EEP/EAEren arteko lankidetzaren fondoa (+ 40 000 € // 2008)

2007ko dispositiboaren jarraian, Euskal Autonomia Erkidegoarekilako Hitzarmena eraberrituko da eta EEPk kudeatuko duen 1 380 000 €ko fondo baten plantatzea ahalbidetuko du. Fondoan, 920 000 €ko ekarpena egingen du EEPk eta 460 000 € EAEk.

2009rako proposatua da bereiztea, hizkuntza eragile pribatu ezagun batzuk² alde betetik eta bestaldetik, denei irekia izanen den behin-behineko proiektuentzako deialdia :

- Hizkuntza jardueraren alorrean diharduten eragile ezagun batzuekilako hitzarmenak 970 000 €
- Hizkuntza jarduera Proiektu Deialdia (behin-behinekoa) : 410 000 €

Lankidetzaren fondoaren gauzatzeari lotu xehetasunak EAErekilako Hitzarmenaren 2009ko eranskinak zehaztuko ditu.

² Euskal Haziak, Biga Bai, Ikas Bi, Seaska, Euskal Irratiak, Uda Leku, Bertsularien Lagunak, AEK

3.2. Euskaltzaindia

2008an izenpetu hitzarmenean adostu den bezala, Euskaltzaindiari emandako diru-laguntza, 2009ko finantzaketa Eranskinean agertuko da. EEPk Euskaltzaindiaren 2009ko jardueren programarentzat **140 000€**ko dirulaguntza esleituko du.

4. Ikasmaterialaren ekoizpenari buruzko egitasmoak (-40 000 € // 2008)

Euskal Herriko Hitzarmen Bereziaren abiatzeaz geroztik, euskarazko ikasmaterialaren ekoizpenaren aldeko ahalegina, egonkorra izan da :

- ❖ 7 argitalpen programa onartu dira : orotara 961 000 €
 - 59 tresna pedagogiko plazaratu dira programa hauei esker
 - 16 eskuliburu
 - 2 liburuxka
 - Ikasleentzako 18 ariketa kaier
 - 5 paretako panel edo afixa serie
 - Gazteentzako literaturako 14 liburu
 - 4 KD, maleta...

Ikastrena hauetan 9 berrargitaratuak izan dira (eskuliburu 1, 5 jarduera-kaier, gazteentzako literaturako 3 liburu).

- Beste 7 ekoizten ari dira
 - 1 eskuliburu
 - 3 jarduera kaiera
 - Gazteentzako literaturako liburu 1
 - Maleta 1
 - KD 1

2009 urtea erabiliko da argitalpen programa berri baten abiatzeko 2006ko maiatzaren 30eko AKak definitu zituen prozeduren errespetuan (jadanik abiatuak diren argitalpen programen bururatzeak du lehentasuna ukanen). 2009an ekoiztuko den ikasmaterialaren bolumena aitzineko urteetakoaren antzekoa izanen da. Aldiz, aurrekontua apalduko dugu (-40 000 €), aitzineko urteetan kredituak anulatu baitira gauzatu ez diren egitasmotan.

Ikas pedagogia zentroak bere ahalak egonkortu eta iraunkortuak izan ditu, ikasmaterialgintzan obratzen duen zerbitzu publikoko misiolaritzaren bidez. Hitzarmen ofizial batek Euskararen Erakunde Publikoaren eta Errektoretzaren engaiamendua 4 urterako formalizatu du (2006/2009).

EEPren parte hartze ekonomikoa Ikas Pedagogia zentroan, Hitzarmen horren arabera finkatua da. Urtero bezala, lehenago, 2009 jarduera programa eta 2008ko kontu xeheak aztertuko dira.

Hitzarmena 2009 bukaeran burura helduko baita, honen eraberritzearen prestaketak bidean den dispositiboaren eta Ikasen egoera ekonomikoaren ebaluaketa zehatza audit baten bitartez eginen da.

260 000 €ko aitzinkontua aurreikusia da ikasmaterialaren ekoizpenaren programa osoarentzat.

5. Ikastetxeek garaturiko hizkuntza egitasmoak (+ 20 000 € // 2008)

Euskarazko irakaskuntza eskaintzen duten eskoletako zuzendaritza eta irakasle taldeek, erregulariki abiatzen dituzte eskola eremutik kanpo euskararen erabilpenaren bultzatzeko ekimenak : beste eskolekiko trukaketak, ahozkotasanaren bultzatzeko kultura tailerrak, animazio desberdinak ...

Testuinguru soziolinguistikoa kontutan hartuz, sail elebidunean eskolatuak diren ikasleen gehiengo nagusia familia erdaldunetatik heldu delarik, gisa honetako egitasmoek azkarki laguntzen dute sail elebidunen egonkortzen, izan ere, eskola ordutegitik haratago euskararen erabilpenaren jendarteratzeko gaitasuna baitute, eskolaren baitan euskararen baliatzea sustatuz, kurtsoetatik kanpo, bide batez ikasleen motibapena lagunduz bai eta familia eta irakasleena ere.

Elkarte eta eragile pribatuentzako Proiektu Deialdia ez baita eskolen eskaerei irekia, 2008an eskolek eramandako hizkuntza proiektuen laguntzeko fondo baten martxan ezartzea erabaki da.

Deialdi honek arrakasta bizia eskuratu baitu 2008an, Fondo berezitu honen kopurua 60 000 € tara emendatzea proposatua da (+20 000 €//2008)

Ikastetxeei 2008-2009 ikasturte bukaeran jakinaraziko zaie, txostenak 2009/2010 ikasturte hastapenean azertu eta tratatuko dira (urri hastapenean) eta egitasmoak 2009-2010 ikasturtean zehar iraganen dira.

Administrazio Kontseiluak azertu aitzin, akademiako zuzendaritzak eta EEPk osaturiko Batzorde Tekniko batek aztertuko ditu txostenak.

Hautaketarako irizpide nagusiek, proiektuen hizkuntzaren dimentsioa eta eskola mailako ikasketarekiko osagarritasuna, kontutan hartuko dituzte.

6. Egituraren funtzionamendua

Lehen aipaturiko aitzinkontuaren 5 kapituluek, proiektuei zuzenki emandako dirulaguntzak eta eragileei banatutakoak kontutan hartzen dituzte.

Baina proiektu hauen gauzatzeak egitura mailako hainbat gastu eragiten du, EEPko lantaldeak bertan iragandako denbora eta hauei loturiko ibilmolde gastu arruntei dagozkienak.

Lantaldearen ekimena ondoko alorretan obratzen da nagusiki :

- ➔ Eragile pribatuei zuzenduriko Proiektu Deialdiaren antolaketa eta lagunduriko proiektuen finantza eta administratibo arloaren jarraipena
- ➔ EEPk obralari gisa daramatzen proiektu guzien obratze eta jarraipena
- ➔ Irakaskuntza alorrean garaturiko ekimen guzien animazio eta jarraipena
- ➔ Hizkuntza teknikarien sarearen animazioa eta tokiko aginteek eramandako egitasmoen laguntza teknikoa
- ➔ Ikasmaterialari zuzenduriko deialdiaren antolaketa eta Ikas pedagogia zentroaren argitalpen programen finantza eta administrazio jarraipena.
- ➔ Euskal Autonomia Erkidegoarekiko partaidetzaren animazio teknikoa
- ➔ Administrazio Kontseiluaren bilkuren prestaketa eta bertan harturiko erabakien obratzea.

2009 urtearen berezitasuna, Zuzendaritza Idazkari lanpostu baten sorrera izanen da. EEPko lantaldearen zereginen emendatze progresiboak, 2006ko abenduan onartu zen Hizkuntza Politika Proiektuaren gauzatzeari loturik eta abiaturiko xantier desberdinen hobeki egituratzearen beharrak, idazkaritza postu baten sortzera daramate EEP. Lantaldea honela osatuko da beraz:

- Zuzendari 1
- 6 Misio Kargudun
- Zuzendaritza idazkari 1

Egituraren funtzionamendurako aitzinkontua **466 000 €**koa da (ikus sarrera eta gastuen aitzinkontua).

II. 2009KO AITZINKONTU GEHIGARRIA: Frantsesa - Euskara hiztegiaren jarraipena

EEP, dohainik, etengabe eta libreki kontsultatzen ahalko den sarean jarritako erreferentziazko frantses-euskara hiztegi baten ekoizpen proiektu batean engaiatu da. Ikusmiran den lehen betekizuna, fondo lexikal egoki bat euskaradun komunitatearen esku uzteko xedetik doa, batez ere gehienik jendarteratuak diren hizkuntza erabilpen garaikideak eskuragarri jarritz.

Planta handiko operazio hori 3 urtetan finkatuko da (2009, 2010 eta 2011).

Kontseilu Orokorretik eta Eskualde Kontseilutik eskuratu 2008ko aitzinkontu gehigarriaren haritik, EEPk berriz ere **orotara 120.000 €ko aitzinkontu gehigarri baten** eskaera luzatzen du 2009rako, proiektuak aitzina segitzeko gisan :

- Akitania Eskualdeko Kontseilua	50 000 €
- Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra	50 000 €
- Euskal Kulturaren aldeko Herrien arteko Sindikata	7 500 €

107 500 €

II.1. GASTUEN ETA DIRU-SARREREN AITZINIKUSPENA

Interes Publikoko Elkargoen kontabilitateko M9 nomenklaturaren arabera

	EEPk obratzen dituen proiektuak	Tokiko elkargoei eta eragile publikoei doazkien dirulaguntzak	Elkarteei eta eragile pribatuei doazkien dirulaguntzak	lkas materiala	Ikastetxetako proiektuei doazkien dirulaguntzak	Egituraren funtzionamendua	OROTARA GDA
GASTUAK							
60- EROSKETAK						7 000	7 000
6063- MATERIAL TTUPIAREN EROSKETA						1 000	1 000
6064-ADMINISTRAZIOKO EROSKETAK						6 000	6 000
							-
61-KANPOKO GASTUAK						31 000	31 000
612200-ONDASUN HIGIGARRIEN ALOKATZEA						2 600	2 600
613100-ONDASUN HIGIEZINEN ALOKATZEA						10 000	10 000
615600-LANTENTZE KONTRATUA						15 000	15 000
616000-ASEGURANTZAK						1 900	1 900
618100-DOKUMENTAZIOA						1 000	1 000
618500- GELEN ALOKATZEA						500	500
62-BESTE KANPOKO ZERBITZU GASTUAK	80 000					63 000	143 000
622200-ORDAINSARIAK	25 000					9 000	34 000
622800-ZERBITZU-SARI EZBERDINAK	25 000					7 000	32 000
623100-ABISUAK, IRAGARKIAK	10 000					5 000	15 000
623800-ARGITALPENAK, KOMUNIKAZIOAK	10 000					10 000	20 000
625100-GARRAIO GASTUAK	5 000					12 000	17 000
625700-MISIOAK- OSTATU EMATEA	5 000					4 000	9 000
626100-POSTA TELEFONA INTERNET						13 000	13 000
628200-JARRAIPEN FORMAIZIOA						3 000	3 000
64 - LANGILE GASTUAK						355 000	355 000
65-DIRULAGUNTZAK		140 000	1 520 000	260 000	60 000		1 980 000
68-AMORTIZAZIOAK						10 000	10 000
681100-AMORTIZAZIO HORNIDURAK						10 000	10 000
GASTU GUZIAK	80 000	140 000	1 520 000	260 000	60 000	466 000	2 526 000

DIRU-SARRERAK

74-ERAKUNDE PUBLIKOAREN PARTAIDEAK	2 526 000
741100-ESTATUA	620 000
- Hezkunde Nazionala ministerioa	206 667
- Kultura ministerioa	206 667
- FNADT	206 666
744000-ESKUALDEKO KONTSEILUA	620 000
744100-KONTSEILU NAGUSIA	620 000
744200-EUSKAL KULTURAREN ALDEKO ELKARGOA	186 000
748000-HAUTETSIEEN KONTSEILUA	20 000
748000-EUSKOJAURLARITZA	460 000

-EEPren 2009ko AITZINKONTUA -

II.2.
**SINTESIA TAULA 2009ko AITZINKONTUAREN
PRESTAKETA**

II. Funtzionamenduaren aitzinkontua

SARTZEAK

Aitzinkontu honen oinarriak ondokoak dira:

- EEPren baliabide propioak 2 066 000 €
 - ESTATUA 620 000 €
 - AKITANIAKO ESKUALDEA 620 000 €
 - PIRINIO ATLANTIKOETAKO KONTSEILU NAGUSIA 620 000 €
 - EKHE 186 000 €
 - EUSKAL HERRIKO HAUTETSIEN KONTSEILUA 20 000 €
- Euskadi Autonomia Erkidegoko ekarpena 460 000 €
Lankidetzaren baitan

2 526 000 €

GASTUAK

	2008ko aitzinkondua	2009ko aitzinkondua
EEPk obratzen dituen proiektuak	120 000 €	80 000 €
Tokiko aginteei eta eragile publikoei doazkien dirulaguntzak	120 000 €	140 000 €
→ EKHE/TDF hedagailuen mantentze-lanak	40 000 €	
→ Tokiko elkargoen proiektuak (Teknikarien sarea)	60 000 €	
→ Beste proiektu publikoak	20 000 €	
Elkarteei eta eragile pribatuei doazkien dirulaguntzak EEP/EAEn arteko lankidetzaren barne	1 340 000 €	1 380 000 €
→ Hizkuntza jardueraren alorrean diharduten eragile ezagun batzuekilako hitzarmenen finkatzea, EEPren Hizkuntza Politika Proiektuarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Planarekin bete-betean datozenekin (Euskal Haziak, Biga Bai, Ikas Bi, Seaska, Euskal Irratiak, Uda Leku, Bertsularien Laqunak, AEK).	930 214 €	970 000 €
→ Hizkuntza jarduera Proiektu Deialdia (behin-behinekoa)	409 786 €	410 000 €
Euskaltzaindia	140 000 €	140 000 €
Ikasmateriala (Ikas-en funtzionamendua eta argitalpen proiektuak)	300 000 €	260 000 €
Ikastetxeen hizkuntza proiektuen dirulaguntza	40 000 €	60 000 €
Egituraren funtzionamendua	466 000 €	466 000 €
	2 526 000 €	2 526 000 €

III. 2009ko AITZINKONTU GEHIGARRIA

- **Frantsesa/Euskara hiztegi proiektua**

- Akitania Eskualdeko Kontseilua 50 000 €
- Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia 50 000 €
- EKHE 7 500 €

107 500 €

II.3.
2009rako Euskararen Erakunde Publikoaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzan proposamenaren irudikapena

2009rako EEP eta EJren arteko lankidetzan proposamenaren irudikapena
(2008an onetsi edota 2009rako somatu diru-partidetan oinarrituz)

